



Luis Gordillo

Luis Gordillo irakasleak Nicolás Pérez Serrano saria jaso du, Konstituzio Zuzenbideko tesirik onenagatik

Luis Gordillo irakasleak Nicolás Pérez Serrano saria jaso du, Konstituzio

Zuzenbideko tesirik onenagatik. Gordillo irakaslea Zuzenbideko doktorea da, «Europako doktore» aipamena duena, eta Unibertsitateko Zuzenbide Publikoko Saileko irakaslea da. «Las relaciones entre ordenamientos de naturaleza constitucional» tesia 2010eko otsailaren 4an irakurri zuen Unibertsitateko Gradu aretoan, bikain *cum laude* kalifikazioa eman ziotelarik, aho batez. Saria ezarri zenetik hona, 30 urtetan, lehenengoz eman zaio saria publikoa ez den unibertsitate batean defenditu den tesi bati, eta lehenengoz eman zaio saria Euskal Herriko unibertsitate batean defenditutako tesi bati. Sariaren izena Nicolás Pérez Serrano da eta urtero ematen du (sari bakarra urtean eta aipamen bereziren bat) Presidentzia Ministerioari atxikitako Ikasketa Politiko eta Konstituzionalen Zentroak. Espainiako saririk garrantzitsuena da Konstituzio Zuzenbideko tesien artean.